

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Mikel Basabe Kortabarria Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkideak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** egiten du “Egunkariari auziari buruz”, osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin, urgentziatzeko tramitean.

ZIOA

Zortzi urteren ostean hasi da Euskaldunon Egunkariaren kontrako epaiketa. Bere egunean, Egunkariaren itxieraren ostean, 2005eko azaroaren 25ean Eusko Legebiltzarrak onartu egin zuen adierazpen- eta iritzi-askatasuna defendatzen dituela, “oinarrizko eskubide gisa, gainerako giza eskubide guztien errespetuan oinarritua” eta “Euskaldunon Egunkariaren kontra irekiriko prozedurari eusteko oinarri garbi, zehatz ezta behar bezain sendorik” ez zegoela. Halaber, Legebiltzarrak adierazi zuen, “kausa eta prozedura behin betiko artxibatzea dela legearen barruan hartu beharreko erabaki judiziala. Horrela, legearen aplikazioa egungo errealitate sozialera egokitzeaz gain, prozedura judizial batean inoiz eman beharko ez zatekeen bultzada politiko bat zuzentzeko eta Euskal Herriko bakegintza eta normalizazio politikoan aurrera egiteko laguntza handikoa litzateke”.

Zortzi urte behar izan dira epaitegiak Euskaldunon Egunkariaren ordezkarien kontrako epaiketari ekiteko. Horren aurrean, hurrengo **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** aurkezten du:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

1. Eusko Legebiltzarrak *Euskaldunon Egunkaria* zenaren aurkako prozesuak zuzenbideko oinarririk gabea dela adierazten du eta Auzitegi Nazionalari eskatzen dio auzia behin betiko artxiba dezala eta egindako kalteak konpon ditzala.
2. Halaber, Eusko Legebiltzarrak elkartasuna adierazten die auzi horretan inputatutakoei eta kezka adierazi *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenetik jasan behar izan duten egoeragatik.

URGENTZIAZKO TRAMITAZIOA

Zortzi urtez egon dira Euskaldunon Egunkariako auziperatuak euren errugabetasuna eta auziaren artxibatzea gauzatzeko zain. Egoera horrek eragindako kalteak areagotu ez daitezten, epaia ahalik eta azkarren eman beharko luke epaitegiak eta horretarako euskal autonomia erkidegoaren gizartea ordezkatzeko duen erakunde nagusiak auziaren itxieraren aldeko jarrera publikoa lehenbailehen adieraztea lagungarri izan daitekeelako.

Gasteizen, 2010eko urtarrilaren 14an

Mikel Basabe Kortabarria
Aralar legebiltzar-taldeko legebiltzarkidea